

Alkate – batzuen – arrazakeria

Jon Mirena Landa

Zigor Zuzenbideko irakaslea, EHU

I Duela 5 urte inguru, 2009ko udan hain zuzen ere, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak –bere 2. aretoaren bitartez, oso polemikoa, eta argigarria– suertatu zen epaia ezagutzera eman zuen. «Féret versus Belgika» izeneko kasuan honako hau zegoen auzitan: Feret jauna, eskuin muturreko alderdi baten (alegia, Front National-aren) buruzagia zelarik, zigor penala ezarri zioten arrazakeria eta diskriminazioa bultzatzeagatik. 1999ko uztaila eta 2001eko urria bitartean kondenatuak hainbat ibilbide orri sakabanatzeari ekin zion, bai eta alderdiko web orriaren bitartez ere, etorkinen eskubideen kontrako adierazpenekin. Funtsean, etorkinak –haren ustez– ari omen ziren bertokoen lepora bizitzen, gizarte-laguntzetatik probetxua ateratzen, eta aditzera ematen zuen, hortaz, hobe etorkinak Belgikara etorri(ko) ez balira edota joango balira.

Feret jaunak, Belgikako auzitegi penalek kondenatu ondoren, Estrasburgora jo zuen; izan ere, bere adierazpen-askatasuna urratua ikusten zuen–eta, bere iritziz, zigor penala ez zi zioten ezarri delitu bat egiteagatik, ideia eta iritziz jakin batzuk edukitzeagatik baizik, eta, jakina denez, Estatu demokratikoetan, hitzek ez dute delitua egiten: egitateak dira epaitu beharrekoak, ez esanak.

Estrasburgok, ordea, 2009ko uztailaren 19an hain zuzen ere, ez zion Fereti arrazoi eman. Ez aho batez, ordea. Gaiaren inguruko zalantzak argi eta garbi islatzen, 4 magistratuk 3 magistraturen gainetik aldarrikatu zuten Fereten adierazpen askatasuna (Europako Giza Eskubideen Hi-

tzarmenaren 10. artikulua) ez zela inolaz ere urratu, etorkinen aurka esandakoaren oinarrian kondena penala ezarri ziotenean.

Fereten antzeko kasu ugari dira Europan, ugari ere diren bezala Estrasburgo aurrera eramane ostean Giza Eskubideen Auzitegiak arrazakeriaren aurkako kondena penala ontzat jotakoak. Baina, kasu honean, berezi xamarra suertatu zena hurrengo zera izan zen: Auzitegiak Fereten kontra jotzera eramane zuena Feret politikari bat izatearekin zuen zerikusi zuzen-zuzeneko. Laburbildurik, Feret ez zen edozein pertsona, demokraziaren ideien borroka zibilizatuan bere iritzia botatzen ari zena, baizik eta obligazio bereziak edukitzen dituen politikaria, bere ideiak defendatzeko orduan bereziki tentuz ibili beharreko talde jakin batzuen aurkako gorroto, diskriminazio edota indarkeriara ez probokatzekotan.

2 Euskal Herrian denbora tarte laburrean bi kasu, besteen artean, zalapartatsu xamar suertatu dira, bi alkatek etorkinen aurka izandako adierazpenak direla eta. Sestaoko alkateak, 2014ko maiatzean, oso hitz gogor eta iraingarriak erabili zituen etorkinen aurka. Adierazpenak zirkulu semi-privatuan egin arren, hiritar batzuekin elkarrizketa jakin baten testuinguruan, azkenik herriplazara zabaldu ziren, eta, gainera, komunikabideak direla tarteko, ikaragarriko hedapena izan dute, eta populazioaren gehiengo handi bat jadanik horren jakitun da. Adierazpenek ez ziren, gainera, etorkinen aurka egiteko moduan isilbidezkoak izan, oso-oso gordinak eta esanbidezkoak baizik: Feret kasuan adierazi zena baino gordinagoa dudu barik.

Ildo beretik, Gasteizko alkateak, joan den uztailetik aurrera, etorkinek gizarte-laguntzez abusatzen omen dutela ere esan zuen. Sestaoko alkatearekin alderaturik,

diskurtsoa ez da gordina: alegia, ez da etorkinen aurka modu iraingarri argi eta garbian aritzen, zeharkako eran baizik. Fereten kasuan bezalaxe, etorkinak gure lepora omen direla bizi, kolektibo gisa, iradokitzen du.

Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiaren ikuspegitik, mugan daude bi kasuak –Sestaoko areago–: alegia, nekez babestuko litzuzke alkateok Europako Auzitegiak, Estatu Espainiarrean esandakoarengatik kondenatuko balituzte. Beste era batera esanda: haien adierazpenek ia ziur ez lukete mereziko Europako adierazpen-askatasunaren estalkia eta babesa. Dena dela, zalantza bakarrak sortzen da kondenaren penalaren inguruan: alegia, isun administratiboa, alderdi politikoaren barneko zigor diziplinarioa edo, noski, erantzukizun politikoarengatik kargutik kenduko balute, inor ez litzateke harririk, kontra-ko baizik.

Argiago esatearren: demokrazia jator

Kolektibo osoaren irudi negatiboa egonkortzen badugu gure gizartean, nolatan txertatuko ditugu normaltasunez kanpotarrak gure gizartean?

batean ezin da adierazpen publikorik egin kolektibo osoen kontra. Ez da *political correctness* edota estilo kontu bat, batzuetan gutxiesten den bezala. Demokraziaren elkarbizitza dago jokoan. Edo eraikitzen dugu gure gizarte modernoan guztientzat lekua eginez, edo ekiten diogu horri talde-osoak baztertuz. Horrek badu izena: diskriminazioa, arrazakeria, xenofobia. Eta horretan buruzagi politikoei ikaragarriko garrantzia dute: beraiek badute obligazio extra eta apartekoa elkarbizitza prestatzeko. Itsua izango litzateke, guztiz, pentsatzea azken batean jendeak alkateoi arrazoi emanen omen dietela. Batetik, hori argi ez dagoelako: hori nola neurtzen da? Eta, bestetik, kaltea, elkarbizitzaren kaltea, bai epe motzean, baina bai –eta batez ere–ertaineko epe eta epe luzean gautzatzen baita. Kolektibo osoaren irudi negatiboa egonkortzen badugu gure gizartean, nolatan txertatuko ditugu normaltasunez kanpotarrak gure gizartean? Eta ez bagara gauza kanpotarrak gizarteratzeko, baztertuak bilakatuko ditugu, injustizia eta arazo ikaragarriak sortuz: etorkizuuna pozoituz.

Aipatu alkateak suarekin ari dira jolasen, laster gu guztiok –sutean harrapatutik– erre ahal izateko. Pentsa dezagun, bestela, Algortan izan zen talde etniko kide batzuen aurkako erasoaren kontuan. Eta, kontuz, ez nabil esaten alkateek sortu duten giroaren ondorioz Algortakoa gertatu dela, terrorismo gaietan pentsamolde hori askotan erabiltzen bada ere erantzukizun penala ezartzeko. Esaten ari naizena, bada, herri-plaza eraikitzen alkateek kale egin dutela, eta kalte ikaragarria egiten ari direla. Ez, agian, erantzukizun penala ezartzeko adina; baina, dudu barik, beraien alderdi politikoetatik bakartuak izan daitezken. Diskurtso xenofoboak moztzen ez badira erroten, horiek bukatuko dute alderdi politiko osoak zanpatzen: Europa adibide.

ZUZENDARIARI

Euskal pilota

Medikuntzako ikaslea naiz EHUko Medikuntza eta Odontologia fakultatean, eta aurrean laugarren maila hasi behar dut. Era berean, garrantzitsua da jakitea ni Sondikakoa naizela eta Basurto edo Gurutzetako ospitaleak etxetik hurbil dauzkadala.

Joan den uztailaren 24an, 11:10etan, automatrikula *on line* egiteko hitzordua nekanean. Nire etxean ordenagailuan egiten saiatu nintzen, eta, nirekin zerikusirik ez duen arazo informatiko batengatik, ezin izan nintzen ordu horretan matrikulatu. Azkenean, ordu erdi saiatzen egon ostean eta telefonozko arreta zerbitzura behin eta

berriro deitzen egon ostean, lortu nuen matrikula egitea, baina ordurako ez zegoen tokirik Bizkaiko ospitaleetan. Horren ondorioz, Donostiako Ospitale Unibersitarioan amaitu behar dut gradu osoa (kontuan izan Sondikan bizi naizela).

Ez naiz arazo hau jasaten ari den bakarra; izan ere, nire klaseko kide batzuei ere beste horrenbeste gertatu zaie. Egia esan, ez dakit zehatz-mehatz zergatik gertatu den arazo hau (Gurutzetan, azken urteetan ez da arazorik egon tokia izateko), baina kontuan izanda gradua hasi genuen urtean (2011) beste autonomia erkidego-

tatik normalean baino askoz ikasle gehiago sartu zirela, pentsatzeko da haiek izan direla guri tokiak kendu dizkigutenak (beren herrialdera espediente lekualdaketa eskatu beharrean, gurean gelditu nahi dutelako ikasten).

Horrekin guztiarekin honako hau ondorioztatuta nahi dut. Ez dut bidezkoa ikusten euskalduna izanda eta betidanik euskaraz ikasita Espainiatik datorren medikuntzako ikasle baten eskubide berdina izatea ikasteko ospitalea aukeratzeko orduan.

Uste izatekoa da euskal kultura bultzatu nahi dela, baina honelako kontuekin

bultzatu baino gehiago, atzeratu egingo da (Bizkaiko eta Arabako ospitaleetan ikasleei erdaraz baino ez zaie entzungo).

Nahiz eta ezinezkoa izan, konponbide bakarra aurkitzen diot honi: hirugarren mailatik aurrera Euskal Herrikoa ez den ikasle bakoitza bere autonomia erkidegora espediente lekualdaketa egitera behartzea. Hala, hemengoak garenok ez genuke arazorik izango etxetik hurbilen dugun ospitalea aukeratzeko.

Aurrean konpondu ezin bada, gutxienez hurrengo urteetan justizia egin dadila. Niri jada bizitzako hurrengo hiru urteak guztiz aldatu dizkirate, besteak beste, nire familiarentzat ekonomikoki gastu oso handia izango delako.

Eneritz Urrutia.

Sondika.



BERRIAk irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarfeak barne, eta BERRIAk mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berria, Martin Ugaldel kultur parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.eus.